



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko apirilak 7
Ordua: 09:00 – 09:25
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba.

Ez dira bertaratu:

Jose Luis de Valle Duque

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko martxoaren 10ean egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkate jaunak hartu du hitza: Ezer esateko baduzue...

Joseba Vivanco: Gauza bat bakarrik, aurrerantzean zuzendu dadin soilik. Hain zuzen, "andereño" hitza ekiditeko. "Alazne Lafragua andereñoa", pentsatzen dut, era berean, "Maria andereñoa" izango dela... Horrenbestez, jaun edo andre izanda ere, horiek alde batera uzten baditugu, hobe.

Alkatea: uste dut hobe dela alde batera uztea jaun, andre eta halakoak.

Joseba Vivanco: Uste dut hobe izango dela une honetatik aurrera kendu eta hartara gai bat gutxiago.

Alkatea: bai, hobe izena jartzea.

Joseba Vivanco: Izan ere, ikusten dugu "Unai Gotxi jauna" jartzen duela eta, ondoren, azkenik...

Iñigo Gomez; bai, eta Alkatearen kasuan, Alkatea, eta ez Alkate jauna.

Joseba Vivanco: Nik uste dut hori baztertu egin behar dela une honetatik hasita.

Ascen Hormazabal: Ez, orain ez, ez ditut nik egiten eta, Piliri esan behar diot.

Alkatea: Ongi, ados.

Joseba Elejalde: emakumearen nazioarteko egunari dagokionez, ordu jakin horretan aurkeztutako mozioa babesten dudanean, hasiera batean, esanahi dudana da feminismo hitzaren esanahia, baina hemen ez da islatzen zer den...

Ascen.: Ea, Joseba, argi mintza zaitetz, izan ere, Pilik esan zidan ez zizula deus ulertzen, ez dakit zer jarriko duen.



Joseba Elejalde: ez, egiaz ez da deus agertzen. Besterik gabe islatu nahi dut lehen kontzeptua, feminismo hitza ez dela mozioan islaturik agertzen dena eta, beno, gero bai, gutxi gorabehera...

Alkatea: hurbildu mikrofonora:

Joseba Elejalde: Gehiago?

Alkatea: bai

Ascen Hormazabal: Niri galdetu zidan ea banekien zer esan zenuen eta ezetz erantzun nion. Orduan, ulertzen ez bazuen kentzeko adierazi nion, orrazteko apur bat, ez zitzaizun ulertzen eta. Baina, tira, orain hau gainera dezakegu.

Joseba Elejalde: Ongi, ados, gero pasako dizut.

Ascen Hormazabal: Ez dakit idatzian jartzen duen modu berean ipin dezakegun, baina, tira, esango diot.

2016ko martxoaren 10eko akta aldatu da.

2016ko martxoaren 10ean egindako saioko akta bozkatu da:

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

2. Erakunde honek 2015eko ekitaldiko aurrekontu orokorraren gainean egindako likidazioari buruz Idazkaritza eta Kontu Hartzaitzak taxututako txostenaren berri ematea.

Alkatea: hortxe duzue Idazkaritza eta Kontu Hartzaitzak idatzitako txostena. Orain derrigorrezkoa da Udalbatzari txosten horren berri ematea eta, datu adierazgarriak dira gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina 581.556,22 eurokoa dela eta 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza 271.405,86 eurokoa dela. Zerbait esan nahi baduzue.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

3. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2016. urteko 29-46 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.

Alkatea: ezer galdetu nahi baduzue.

Arkaitz San Jose: beno, ez da ezer zehatza. Kontua da obra-lizentzia batzuk daudela eta, tira, bai, baten gainean zehazki, eta, ondoren orokorrean guztien gainean. Zehazki adierazi nahi dudana mojen barneko atariko obra-lizentziarena da, ez dakit Udalak zenbateraino duen betebeharra Estatuaren eta Egoitza Santuaren artean Elizako kontuak salbuetsita geratzeko adostutako akordioa betearazteko, bai Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez eta, baita, kasu honetan gertatzen denez, obra-lizentzietan dagokienez, baina garaiz kanpoko kontua dela uste dugu erabat. Derrigorrez betetzeko bada, horrela geratu beharko da, baina gure ustez ez da beharko litzatekeenarekin bat datorren zerbait. Hori lizentzia zehatz horren inguruan. Eta, gero bada beste kontu bat, izan ere, azkenaldian ez dakigu bat datozen obrak esleitzen diren



lizentziekin udalerrian egiten diren obra batzuen kasuan. Eta guztietan, zortzigarren puntuan adierazten denez, behin obra amaituta Udal teknikariek lizentzia esleituarekin bat datorren egiaztatu beharko dutela, bada, kasu batzuetan zalantzak ditugu azken emaitza eskatutakoarekin bat etorri den ala ez. Horrenbestez, ez dakigu zenbateraino, baina horren inguruko kontrol gehiago behar dela uste dugu.

Alkatea: bada, teknikariak obra batzuetan izaten dira, baina ez guztietan, ezinezkoa baita eskatzen diren obra guztietara joatea.

Arkaitz San Jose: bai, baina adibide batera, niri esan didatenez, kasuren batean gauza bat eskatzen zen baina beste era batera egitea hobe zenez, zerbitzu teknikoek ere beste era batera egitea gomendatu dute eta, jakina, hori gero ez da lizentzia inola ere islatzen. Orduan, noski, eta teknikariek gomendatuari jarraitu ondoren, emaitza eta eskatutakoa ez datoz bat. Nire ustez, hori zuzendu egin beharko litzateke.

Alkatea: ongi dago oharra, beti dago zer hobetu. Beste ezer Alkatetza-ebazpenen inguruan?

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

4. Udal kudeaketaren kontrola

• Alkatea: hel diezaiogun udal kudeaketaren gaineko kontrolaren gaiari eta ezer baino lehen gauza bat esan nahi dut. Bildu taldeak Foru Aldundiak errepideetan egindako garbiketari buruz aurkeztutako idatzi bat dela eta. Esan behar dut nik ez nekiela garbiketa egingo zutenik, eta are gutxiago modu horretan egingo zutenik. Kexa modura idatzi bat bidaliko dugu, izan ere, naturaren kontrako erasoaz zateaz gain, modu oso bortitzean gauzatu da. Badirudi berriro ziklogenesia igaro dela, eta errepidean dauden elementuetan ere badu eragina, hots, errepideak, seinaleak, seinaleztapen-balizak... aurretik eraman baitituzte. Horrenbestez, idatzi bat bidaliko dugu.

Joseba Elejalde: ez da horrela jarduten duten lehen aldia. Duela hiru urte zuhaitz guztiak kendu zituzten, ez zuten zuhaitz bakarra ere utzi, eta bide-segurtasun kontua zela adierazi zuten. Eta, gero, bada beste kontu bat, horretaz ari garela, nola garbitzen ari diren ere penagarria da. Edo zure buruaz beste egitekoa da, hau da, ia hogeita bost tona dituen hondeatzaile batekin areka garbitzea, bi bideak hartuz, hori... Nonbaitera presaka bazoaz, anbulantzia baten kasuan, bada hogeita minutu itxaron behar, edo haiek uste dutena.

Alkatea: bada, hori argitu nahi nuen. Orain, zuek gaineratu nahi duzuen.

• Unai Gotxi: bai, joan den hilean dokumentu bat sartu genuen Alkatetzari ohartaraziz trafikoko seinale batzuetan eta Interneteko zenbait ataritan ez zela erabiltzen 1989ko martxoaren 9an onartutako herriaren izena, hau da, ez zela Artziniega erabiltzen, baina Arceniega ere ez zen erabiltzen, izan ere, hibrido batzuk baliatzen ziren, arraro samarrak. Eta, akats hori zuzentzeko asmorik dagoen galdetu nahi dugu.

Alkatea: bada, ez diogu gaiari heldu, baina egia da akatsa egon badagoela, izan ere, badira seinaleak Burgosen eta Bizkaian ez dutenak...

Unai Gotxi; eta Araban ere bai.

Alkatea: eta Araban ere bai, badira izen zuzena erabiltzen ez dutenak eta, era berean, egia da Facebook gizarte-sarean eta Wikipedian Arceniega agertzen dela, eta ez Artziniega.

Unai Gotxi; eta berriro diot, ziurrenera, Interneteko atariren batean ere berdin agertuko da.

Alkatea: ez dakit. Ez dakit beste batzuetan hala agertzen den, halakoak oso ohikoak dira. Google eta Wikipedia mundu guztiak erabiltzen ditu eta hor Arceniega agertzen da. Baina ez diogu gaiari heldu.

Unai Gotxi: Eta zein da aurreikuspena?

Alkatea: bada, ezin dizut esan. Ezin dizut esan.



• Joseba Vivanco: nik kontu pare bat ekarri ditut. Uste dut, azkenik, kaiolaren bat erosi zela usoen gaiarekin lotuta. Besterik gabe adierazi nahi dut dagoeneko tresna nagusia eskuetan dugunez egokiena lehenbailehen gaiari heltzea dela, izan ere, nolabait esatearren, jendea kokoteraino dago usoen kontuarekin, nik herrigunearen berri dut, baina, ziurrenera, beste auzo batzuetan ere egoera antzekoa izango da. Horrenbestez, eskuratzeko denbora askotxo behar izan badugu ere, tresna badugunez, esku-hartzeko proposamen bat egin beharko litzateke, adieraziz nola jardungo den edo zer egingo den.

Alkatea: bada, hain justu, goizean, Bilkuraren aurretik, udaletxeko langileekin hitz egiten aritu naiz nola egin aztertuz, nola egin dezakegun jakiteko.

Joseba Vivanco: gehienbat, azkenean, jendea, bada...

Maria Lorente: ñabardura bat egin nahi dut. Usoekin zer egingo den ere begiratu beharko da.

Joseba Vivanco: bai, bai, bai. Hori ere kontuan hartu behar da, nik esan dudana da erabaki bat hartu behar dela, esku-hartzeko garaia dela.

Maria Lorente: bai, bai, nik ere bai. Usoekin dagoen arazoa konpondu egin behar da. Baina usoen amaiera, entzun dudanarekin bat, egia esan behar badut, ez zait egokia iruditzen. Gero, usook harrapatzean, zer egingo duzue haiekin?

Joseba Vivanco: ez, ez, ea ba. Gero, jakina, badira proposamenak. Alde batetik harrapatzearen kontua dago eta, gero, baldintza okerrenetan daudenen edo gaixorik daudenen kasuan, hiltzea edo erraustegira eramatearena. Pentsatzen dut metodo alternatiboak ere izango direla. Nik baten bat ere ikusi dut, ez dakit konplexuagoak diren, bideragarriak diren ala ez. Badakit hori, zeren eta, berriki, herriren batean, uste dut, ez dakit, Sopelan zela, Udalak martxan jarri du metodoa eta elkarteren bat kexu azaldu da, esanez, azken finean, hil egiten direla, eta alternatiba modura, antisorgailuena proposatu zutela uste dut. Ez dakit zein modutan edo nola, baina kontua zen useok antisorgailu hori janariaren bidez irenstea. Egia esan ez dakit zein zen sistema baina hori proposatzen zuten. Udalak begiratu egingo zuela esan zuen, bideragarria edo egingarria den ala ez. Horrenbestez, esan nahi dut ez ditudala ezagutzen dauden alternatibak.

Maria Lorente: Joselurekin hitz egiten, esan zigun bazela aukera bat uso horiek ehiza-barrutietan saltzeko, adibidez. Baina ez dut uste aukera bideragarriena denik ere.

Joseba Vivanco: noski, azkenean pentsatzen dut ugari izango direla aukerak, baina baten alde egin beharko da...

Alkatea: bada, ez dakit, nik uste dut. Aztertu egin behar dugu.

Joseba Vivanco: jakinda arazo bat izan dezakegula, arazorik ez dagoela pentsatu eta gero arazoa sortzearena, bada, abisatuta gaude... arretaz ibil gaitezen.

Alkatea: bai, aztertu egin behar dugu, baina nik ez dut pentsatzen usook etxeko animaliak edukitzeko ordenantzaren barruan sartzen diren animaliak direnik. Orduan, ikusiko dugu.

Maria Lorente: nik dakidala ere ez.

Joseba Vivanco: ez dakit. Esanahi dudana da tentuz jokatu behar dugula...

Ascensión Hormazabal: baten batek bere etxean kaiola batean badauka, hala izango da.

Joseba Elejalde: kontua da, azken batean, arazo asko sorrarazten dituzten animaliak direla, gaixotasunak transmititzen dituztenak, eta nire ustez, aireko arratoi esaten bazaie zerbaitegatik izango da eta, pertsonalki, guk arratoiak hiltzeko arratoi-garbiketa kanpainak egiten ditugu eta, finean, hori ere animalia da eta, orduan, animaliazale diren kanpaina, enpresa edo pertsonak, ordain defenditu ezin daitekeena defenditzen dutenak, arratoiak defenditu ditzakete eta arratoi-garbiketak ez egitea aldarrikatu, eta orduan arratoi guztiak herrigunearan lasterka ikusiko genituzke, ezta? Uste dut gai hauetan esku irmoz jokatu behar dela, eta ez naiz ari esaten tirokatu egin behar direnik edo hil egin behar direnik. Baina, Josebak esan duen moduan, uste dut irtenbide alternatibo bat bilatu behar dela.

Joseba Vivanco: gehienbat gero elkarte jakin batzuk etorriko direlako, hemen badugu bat adibidez. Horrenbestez, kontsulta egin ahal zaie beren iritzia jasotzeko, hori egokia da beti. Ez dadin gerta erabakia hartzea "x" borondate normal batekin eta, bat-batean, hurrengo egunean, zera entzun behar izatea: "baina, zer da egin behar duzuen?" eta gero berriro atzera egitea. Horrenbestez, beno, abisatuta gaudenez, hainbat hobeto.



• Joseba Vivanco: beste gai bat ere bazen, herritarren batek, auzotarren batek dagoeneko planteatu duena, eta Artziniegako telefono-lineekin gertatzen dena, hots, ez dagoela zenbakirik, zenbaki berriei alta emateko, Telefonican behintzat, ez dakit horren inguruan ezer argitu den...

Alkatea: Ez dagoela zenbakirik?

Joseba Vivanco: ni jakinaren gainean nago, izan ere, joan den egunean etxebizitza batean konponketak egiten ari diren pertsona batzuek aipatu zidaten, ustez, udaletxera etorri zirela eta, gero, berriro, kalean aurkituta esan zidaten Telefonicara deitu zutela telefono-linea bat eskatzeko eta ez zegoela erantzun zietela. Artziniegan dena hartuta dagoela dagoeneko. Horrenbestez, norbaitek baja ematen badu izan dezakezula telefono berria, eta uste dut aurrez beste inori ere gertatu zitzaioela. Orduan, ez dakit hori zeren araberakoa den. Telefonicarekin hitz egin eta zerbait gaineratu behar den, matrikuletan bezala zenbakiren bat aldatu behar den, beste bat ematen den edo dena delakoa. Izan ere, haiekin topo egin nuen eta han izan zirela aipatu zidaten eta nik gaia komentatuko nuela esan nien. Horrenbestez, arazo hori zutela, bada, norbaitek zenbakiari baja eman arte, ez duzula edukitzerik berria...

Inmaculada Vivanco: nik uste dut kontua haiena izango dela, gaineratu egin beharko dituztela. Beste zerbait izango da...

Joseba Vivanco: Telefonicarekin kontua diozu?

Inmaculada Vivanco: ... zentralarena edo bitartekariarena, gaineratzeko ardura duenarena eta eskari-kopuru jakin bat jasotzeko zain egon daitezke.

Joseba Vivanco: bai, gainera esan zidanez, Euskaltekin hitz egin du eta baietz esan dio, egin diezaioketela baina hargailu berri bat jarri behar duela, paraboliko bat ez dakit zertarako, eta ezetz esan zien.

Alkatea: ez, bada, horren inguruan dudak lehen albistea da.

Joseba Vivanco: gehienbat agian Udalak Telefonicarekin hitz egin beharko duelako diot, haiei esateko "hara, zera gertatzen zaigu", nik ere aurrez ez baitut halakorik entzun.

Alkatea: lehen albistea da, nik aurrez sekula entzun gabe nuen halakorik.

Joseba Vivanco: linea finkoa, orduan.

Maria Lorente: noski, linea finkoa Telefonicarena da. Ez Jazztelek eta ez Vodafonek, ez dizute linea finkoa emango.

Joseba Vivanco: esan zidanez, herrian norbaitek baja eman arte itxaron behar zuela esan zioten, herrian baten bat joan arte itxaron eta ez dakit zer gehiago, horrela zenbakia libre geratu eta eman egiten dizute.

Inmaculada Vivanco: baina hori hartzeko zonaldea hedatzeko interesik ez dutelako izango da.

Joseba Vivanco: hori esanahi dut, agian Udaletik haiekin hitz egin beharko da hori esateko, eta agian ezetz erantzungo dute, horixe dela dagoena eta besterik ez dagoela egiterik, edo agian aztertu egingo dutela esango dute, ez dakit. Arlo horretan ez dut ezagutzarik.

Alkatea: Telefonican galdetuko dugu. Orain Udala Telefonicarekin bezero integrala denez, agian aintzat hartuko gaituzte gehixeago...

Joseba Vivanco: bada, ez dakit. Ez baitakit zer-nola funtzionatzen duen...

Alkatea: ... edo berbera

Joseba Vivanco: ... gero matrikulak aldatzen diren moduan aldatuko dira agian, beste zenbaki bat hartuz, ideiarik ere ez dut.

Inmaculada Vivanco: Laudion esate baterako 94672 zenbakiarekin identifikatu izan dira beti, eta aspaldidanik badira zerikusirik ere ez duten zenbakiak, eta Telefonicarekin zenbakiak dira. 9601 zenbakia eta zerikusirik ez duten beste zenbait zenbaki.

Joseba Vivanco: gero esan zidaten inori gertatu zitzaioela halakorik eta pertsonaren batek bajan emandako zenbakia eman ziotela, baina ez dakit kontua nola dagoen.

Alkatea: galdetuko dugu.

• Joseba Vivanco: beste kontu bat ere bai, Amurrioko gasolindegiko autobus-geralekuaren gaia, ez dakit, agian Foru Aldundira deitu beharko da berriro, edo garraio sailera, Foru Aldundian arazorik ez zegoela adierazi zuten...



Alkatea: bai, arazorik ez zegoela esan ziguten, baina oraindik erabili gabe dago, hau da, geraleku hori oraindik ez da erabiltzen

Joseba Vivanco: baina ez dut uste aldaketa horren bortitza denik edo horren tragikoa...

Inmaculada Vivanco: linean zehar burutzeke zeuden aldaketa gehiago eskatu ziren.

Joseba Vivanco: baina hori onartuen artean zegoen, eta ez dut uste zenik...

Alkatea: bai, ez zuten inolako aitzakiarik ipini.

Joseba Vivanco:... ez dago ordutegiak aldatzen ibili beharrik. Are gehiago, Valentxuk esandakoaren arabera, haiek ez dute han geratzeko edo gasolindegian sartzeko inolako arazorik. Beraz, Foru Aldundira deitzea litzateke egokiena aldaketa horrekin zer gertatzen den argitzeko.

• Joseba Vivanco: Eta azken kontu bat, joan den hilean Eusko Jauriaritzatik, Berdinu zerbitzutik, adierazi zitzaigun Udalak transexualen gaiari dagokion administrazio-agiriez arduratzeko pertsona bat izendatu behar duela. Ez dakit dagoeneko izendatu den ala...

Alkatea: ez, oraindik ez.

Joseba Vivanco: ez da oraindik izendatu. Eta, beno, azken-azkena, ikusi dut arkitektoaren txosten bat dagoela Encina zelaiko tabernaren egokitzapena balioestekoa. Beno, gehienbat horregatik, jakin dezagun udan funtzionatuko duten, pentsatzen dut...

Alkatea: bai, gertatzen dena da egin beharreko obren inguruko balioespina altua dela. Egin beharreko obrei dagokienez, zenbateko handi samarra ateratzen da. Horrenbestez, batzorderen batean aipatu genuen udarako iristen ez bagara, txosnarekin batera ateratzeko aukeraren inguruan. Horrela, bazkari-egunean elkarteren batek ireki ahal izateko.

Joseba Vivanco: pena litzateke udarako prest ez egotea. Uste dut jendeak haren falta nabaritutako duela. Eta beste ezer ez.

Alkatea: beno, beste ezer?

• Joseba Elejalde: guk azken bilkuran Udaltz hitzarmenaren negoziazio kolektiboari buruzko txosten juridikoa eskatu genuen, ez dakit badakizuen nola dagoen, amaiturik dagoen, ala...

Ascension Hormazabal: bai, egun horretan egin zegoen. Ez dizut eman. Oraintxe aterako dut kopia.

Joseba Elejalde: eta, gero, Iñigo Artziniegako dorreari buruzko gaia une honetan nola dagoen azaltzeko eskatzen dizut, hots, Yolandak giltzak entregatu dituen, entregatu ez dituen, izan ere...

Alkatea: Yolandak oraindik ez ditu giltzak entregatu, ez ditu entregatu. Yolandak aurkeztu duena idatzi bat da, jarduera ekonomikoei buruzko zergan baja ematen duela adieraziz eta bere ustez ondorio guztietarako ematen duela baja, uste dut 2014ko azaroaren 30ekoa dela.

Inmaculada Vivanco: Zer?

Alkatea: 2014ko azaroaren 30an, ezta?

Inmaculada Vivanco: Baja emango duela?

Ascension Hormazabal: 2014ari dagokionez, bai.

alkatea: 2014. urteko amaiera

Inmaculada Vivanco: ez zen datarekin nahastuko, ezta?

Alkatea: guk, idatzi horrekin, Aramendia sozietateari jakinarazi diogu eta Yolandari, eta sozietate kudeatzaileari ere bai, kontratuan ezarritakoa aplikatu dadin eta, horrenbestez, bertan azaldutako klausulak betetzeko eta, horrenbestez, epe jakin batean, ez dut gogoan ebazpenean adierazten den epea, hori hutsik geratu dadila eta giltzak entrega daitezela. Ez dut hemen eskakizuna.

Joseba Elejalde: Ascenek aurreko egunean esandakoaren arabera, berak kontratua aldebakarreko erabakiz eten dezake?

Alkatea: berak uko egin dio. Baja eman du Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergan.

Joseba Elejalde: gauza bat da Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergan baja ematea. Baina gauzak ongi egin behar dira. Izan ere, orain arte ez dira batera ongi egin, ez gure aldetik, eta ez bere aldetik. Zuk Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergan baja eman dezakezu, ez dakit hori atzeraeraginezko moduan egin daitekeen, izan ere, une honetan duela urtetik gorako zerbaitez



ari gara hitz egiten. Gauza bat da esatea 2015eko azaroaren 14an edo 30ean baja emango duzula, baina Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergan baja emateko eskaera egin beharko da. Udal honetan Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergan baja ematea eskatzen duzula adierazteko idatzi bat izan beharko duzu. Eta, ondoren, Ascenek aurreko Bilkuran esandakoaren arabera, kontratuko klausula batean ezartzen denez, Aramendia sozietateak Dorre horretan arduratzeko beste enpresa bat izan arte, bada, hartaz arduratzen zen pertsona, enpresa edo erakundeak ezingo du baja eman. Hau diot, azken batean, ezin dugulako egun duguna baino arazo handiagoa sortu. Kopuruak alde batera utziz, izan ere, Udalean fidantza modura sartuta duenarekin partzialki edo osorik estal daiteke agian, etab.

Alkatea: ez dut uste arazo handiago bat sortzen ari garenik.

Joseba Vivanco: berez, oker ez banago, lau hilabete lehenago eman behar zuen abisua, bere hitzarmenaren arabera, eta egun batetik besterakoa izan zen erabakia. Hemen, Batzarrean, aipatu eta bi orduren buruan, zerutik erorita bezala... Bitxia izan zen, izan ere, herrian jendeak bazekien aste hartan bertan eta Udala ia azkena izan zen jakiten.

Eta jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko bederatzia eta hogeita bost minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.